# Udal-alorrak

Udal-antolaketa 2011ko ekainaren 27ko Alkatetzaren Dekretu baten bidez ezarria dago. Dekretuak xedatzen duenez, Iruñeko Udalaren administrazioaren antolaketa unitate organiko handi hauetan egituratzen da, batzuk zuzenean alkatearen mendean (Alkatetza Kabinetea, Aholkularitza Juridikoaren Zuzendaritza, Gerentzia), eta beste batzuk, zinegotzi ordezkarien mendean (alorrak).

Iruñeko Udala zortzi gobernu-alorretan antolatua dago, eta alor horiek dekretuak berak ematen dizkien eskumenak dituzte. Hona hemen alorrak:

Zerbitzu Orokorrak, horren baitakoak dira ekonomiaren, finantzen eta aurrekontuaren kudeaketako organoak, bai eta Kontu-hartzailetza ere. Eta hari atxikiak dira Mercairuña SA eta Comiruña SA
Hezkuntza eta Kultura; hari atxikiak dira *Iruñeko Haur Eskolak* erakunde autonomoa eta Gayarre Antzokia Fundazioa
Herritarren Segurtasuna
Enplegua, Merkataritza eta Turismoa
Proiektuak eta Hiri Kontserbazioa
Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumena, eta haren baitan Hiria Zaharberritzeko Bulegoa dago. Hari atxikiak dira Hirigintza Gerentzia erakunde autonomoa, Pamplona Centro Histórico SA merkataritzako sozietatea eta Energia Agentzia
Herritarren Partaidetza, Gazteria eta Kirola
Gizarte Ongizatea eta Berdintasuna